BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1063

EBAZPENA, 2013ko otsailaren 8koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita beherago zehaztu aginduan aurreikusitako laguntzen 2012. urteko onuradunen zerrenda: Agindua, maiatzaren 18koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, honen bitartez, Euskadiko enpresen kanpo ezarpenak sor eta gara daitezen sustatzeko Gauzatu Kanpo Ezarpenak Programa arautzen da.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela-eta, laguntza horien onuradunei banan-banan egin beharreko jakinarazpena egin ondoren, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da onuradunen zerrenda. Hori guztia Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2011ko maiatzaren 18an emandako Aginduan aurreikusitako laguntzei dagokienez, agindu horretan arautu baitzen Euskadiko enpresen kanpo ezarpenak sor eta gara daitezen sustatzeko Gauzatu Kanpo Ezarpenak Programa.

Hori horrela, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2011ko maiatzaren 18an emandako Aginduan aurreikusitako laguntzen 2012ko onuradunen zerrenda argitaratzea (eranskinean jasotzen da), agindu horretan arautu baitzen Euskadiko enpresen kanpo ezarpenak sor eta gara daitezen sustatzeko Gauzatu Kanpo Ezarpenak Programa.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 8a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVIÑA.

ERANSKINA

2012 GAUZATU KANPO EZARPENAK

Enpresaren izena	Herrialdea	Aurrerakin itzulgarriak
Aurrenak, S. Coop.	Mexiko	430.029,27
Edelnort Technical Service, S.L.	Mexiko	192.000,00
Imesaza, S.A.	Mexiko	600.000,80
Incoesa Trafodis, S.A.	Brasil	232.616,50
Minos 97, S.L.	Uruguai	90.720,00
Minos 97, S.L.	Txile	92.130,00
PQ4 Electronics, S.L.	USA	351.675,00
Talleres Gometegui, S.L.	Polonia	600.000,00